

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Agenda 21eko Foroa

2009ko urriaren 1ean egindako tailerraren akta

Gaiak:

- Legazpiko natur eta kultur aniztasunaren eta ondarearen inbentarioa
- Auzoak birgaitzea
- "Berriak"

Osteguna, 2009ko urriaren 1a.

Legazpin, 18:30etik 20:00etara

● Tailerraren eta parte hartu dutenen aurkezpena

Udako opor-egunen ondoren, eta oraindik ikasturte berriaren erritmora egokitu ez garenean, Legazpiko Agenda 21eko Foroak bere eginbeharrari ekin dio. Eta gogo handiarekin eta indartuta hasi gara, ohi baino jende gutxiago agertu den arren. Hala ere, Agenda 21eko tailerretan parte hartzen ohi dutenen hutsune hau behin-behinekoa izatea espero dugu eta iraileko itzulera gogorra egiten delako izango dela uste dugu. Egia esan behar badugu, faltan bota zaituztegu!

Horregatik, inoiz baino gehiago eskerrak eman nahi dizkizuegu gaurkoan gure tailerra edukiz eta giro onez bete duzuenoi:

Martin Gonzalez ♦ Joxean Auzmendi (Ingurugela de Legazpi) ♦ Arantza Lobo (Domingo Agirre ikastetxea) ♦ Juan Jose Rodriguez ♦ Manuel Fernandez (Nagusilan) ♦ Floren Gutierrez ♦ Arantxa Segurola (Haztegi ikastola) ♦ Agurtzane Elustondo (Lenbur) ♦ Eugenio Gil (Korosti zikloturistak) ♦ Javier Iraeta (GKN Driveline) ♦ Sote Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Inma Hernandez (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar eta Zorione (Prometea, SC).



● Aztertutako gaiak, zehatz-mehatz

Aktaren goiburuan adierazi denaren arabera, hauek izan dira gaur aztertu ditugun gaiak:

- Legazpiko natur eta kultur aniztasunaren eta ondarearen inbentarioa
- Auzoak birgaitzea

Zergatik gai horiek? Inmak eskaini digun azalpenaren arabera, erantzuna argia da. Urte hasieran Foroak berak, gune honetan landu nahi zituen Agenda 21eko Tokiko Ekintza-planeko proiektuak lehenetsi zituen. Hasierako zerrendatik guztiak aztertu ditugu (batzuk besteak baino sakonago) bi izan ezik eta horrela jaso da ondoren:

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- ✓ 3.1.1., 3.1.2. eta 3.1.3. "JAKIN": kontsumitzaileak ezagut dezala. "NAHI": kontsumitzaileak nahi izatea. "AHAL": kontsumitzaileak ahal izatea.
- ✗ 1.1.9. Legazpiko baso- eta oihan-eremuak modu iraunkorrean kudea daitezela sustatzea.
- ✓ 2.1.11. Mugikortasun arloan dauden ohiturak aldatzeko sentsibilizazio-kanpaina.
- ✓ 7.1.1. Legazpiko merkataritza suspertzeko Plana egitea.
- ✗ 4.3.1. Auzoak birgaitzea.
- ✓ 8.4.1. Agenda 21eko III. Ekintza-planean gazteek ere aktiboki parte har dezatela bilatzea.

Horregatik, urteko azkeneko hiruhilekoan sartu garela ikusirik, gaurko saioan oraindik aztertu gabe dauden bi gaiak ukitzea pentsatu da. Eta gainera, ohi bezala azkeneko minutuetan oharrak eta berriak eskainiko ditugu.

Ikus dezagun jarraian, guztia xehetasunez!

Legazpiko natur eta kultur aniztasunaren eta ondarearen inbentarioa

Koka gaitzen: 1.1.9. ekintzarekin (Legazpiko baso- eta oihan-eremuak modu iraunkorrean kudea daitezela sustatzea) hauxe da gure helburua:



- Legazpiko natur ondarearen inbentarioa egitea.
- Administrazioaren, basozainen elkartearen eta/edo jabe pribatuen artean lan egitea sustatzea. Helburua: Legazpiko baso- eta oihan-eremuen kudeaketa iraunkorragoa bultzatzea, horretarako ondoko neurriak hartuz:
 - Baso-kudeaketa iraunkorragoa lortzeko aholkuen eta jokabide onen berri eman eta horretarako dauden laguntzen gaineko informazioa eman.
 - Udalak landatu gabe dagoen baso-lurra eros dezala, lurzoru horretan bertako espezieak landatzeko.
 - Baso-pista gehiago zabal daitezela debekatu/mugatu eta horietatik dabiltzan ibilgailuen igarobidea kontrolatu.
 - Hazkunde laburreko espezieen landaketa udalerraren eremu indartsuenetara mugatu (edo, gutxienez, horren berri jabeiei eman).
 - Legazpiko baso-eremuen bilakaera ikustaraztea ahalbidetuko duten adierazleen kalkulua eta jarraipena egin eta neurriak hartu (adibidez, baso-landareekiko bertako espezieek okupatzen duten lursail-proportzioa).

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Aurrera egin ahal izateko, Udalak lehen urratsa eman du: epe laburrean lan bat aterako da lehiaketara eta horretarako agiriak prestatu ditu. Hauxe da lana: **“Legazpi udalerriko ingurune fisikoaren azterketa eta naturaren edo paisaiaren ikuspegitik garrantzi berezia duten guneen inbentarioa”**.

Zer lortu nahi da azterketa horrekin? Zehatz-mehatz:

“Legazpiko udalerriko ingurune fisikoaren azterketa eta naturaren edo paisaiaren ikuspegitik garrantzi berezia duten guneen azterketa”

Zeintzuk dira azterketaren **helburuak**?

- Udalerriko natur ingurunea sakon ezagutzea.
- Zaintzeko eta berreskuratzeko lehentasuna duten eremuak antzematea.
- Lurraldeko dibertsitate biologikoa ezagutzea eta zaintzea.
- Eremu horiek modu egokian kudeatzeko proposamenak ezagutzea.
- Teknikariak eta politikariak trebatzea.
- Herritarrei Legazpiko natur aberastasunaren berri ematea.

Azterketa hori egitetik, zein emaitza espero dugu? Hona hemen agirian jasotako hainbat gauza:

- Azterketa sakona egingo da eta honakoak aztertuko dira: ingurune fisikoa, flora, fauna, ibaiak, hezeguneak, paisaia, lurzorua erabilera, konektibitate ekologikoa,....
- Naturaren eta paisaiaren ikuspegitik interesa duten eremuak lehenetsiko dira eta haien zaintzeko eta kudeatzeko irizpideak ezarriko dira.
- Osatuko den agiria paperean eta euskarri informatikoan aurkeztuko da.
- Gutxienez ekintza bat antolatuko da ikerketak jasoko dituen ezaguerak zabaltzeko. Ekintza hori udal teknikariei eta politikariei prestakuntza eskaintzea izango da, herritarrak ere ahaztu gabe.

Esan beharra dago agiri hori prestatzeko lanetan ekarpen desberdinak hartu direla kontuan, hala nola, gaiaren inguruan Agenda 21eko Foroak egin dituen ekarpenak, gaien espezializatuak diren enpresen ekarpenak, Foroko kide diren hiru parte hartzaileen ekarpenak (Joxean Auzmendi, Floren Gutierrez eta Jose Luis Ugarte) eta euskal udalerrietan garatu diren antzeko esperientziak aztertuz ateratako ekarpenak.

Epeei dagokienez, Udalak azaroan espero du lehiaketa esleitzea; hala bada, abenduan hasiko litzateke ikerketa tekniko eta urtebete luzatuko da lan hori. Beraz, azterketaren azken agiria 2010eko amaierarako egon daiteke gertu.



Xehetasun guztiak ezagutu ondoren, galdera bat egin dugu: **lan-prozesu honetan, zein da Foro honek izan dezakeen zeregina?** Inbentarioa bukatuta egon arte itxoin behar al dugu lanean jarraitzeko? Hartu al dezakegu parte inbentarioa osatzeko lanetan? Bururatzeko al zaizkigu bestelako ekintza osagarriak?

Hona hemen otu zaizkigun ideiak eta proposamen moduan botatzen ditugu:

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

“Legazpi udalerriko ingurune fisikoaren azterketa eta naturaren edo paisaiaren ikuspegitik garrantzi berezia duten guneen azterketa”.

Prozesu honetan, zein da Foro honek izan dezakeen zeregina? Zer otu zaigu?

Agenda 21eko Ekintza Planeko 1.1.9. ekintzan aurreikusitakoez gain (onartutzat eta beharrezkotzat jotzen ditugunak) honakoak proposatzen ditugu:

- *Agirian eginkizun berri bat sartzea:* Agenda 21eko Foroak, aldiro, inbentarioa egiteko lanetan parte har dezala.

Aukeratua izango den enpresa prozesuaren une desberdinetan Foroarekin elkar dadila proposatzen dugu. Elkartze horiek bi helburu izango dituzte: batetik, udalerriko ingurune naturalari buruz Foroan parte hartzen duten legazpiarren ezaguera eta esperientzia txertatuko litzateke azterketan; eta, bestetik, bilerak sentsibilizazio-gune diren aldetik baliagarriak izango dira (kontuan izanik Foroan parte hartzen duten kide guztiak ez dutela gaia ongi ezagutzen). Beraz, bilera horietara gure lurraldea ongi ezagutzen duten herritarrak gonbidatzea proposatzen da: baserritarrak, ehiztariak, mendizaleak,....

- *Agirian honako baldintza sartzea: lana eskuratuko duen enpresak inbentarioko emaitza nagusiekin laburpen didaktikoa egin dezala;* modu horretan, laburpen hori zabaltzeko material gisa erabili ahal izango da.
- *Legazpiko ingurune naturalaren berri emateko materiala egin eta/edo egokitzea* (liburuxkak, bidezidorren gaineko informazioa eta seinaleak,...) bi helburu uztartuz: herritarren artean ezagutzera ematea eta zonaldera datozen bisitariei gure ingurunearen berri ematea. Material guzti hori udaletxeko Web orrian agerian egotea komeni da, teknologia berriak eskaintzen digun aukeraz baliatuz (ibilbideak GPS koordinadekin, ...).
- *Legazpiko bide eta bidezidor zaharrak berreskuratu/zaindu/egokitu eta zabaltzea.* Gai horren gainean esan behar dugu Legazpiko Udalak eta Lenbur Fundazioak hainbat diru-laguntza eskatu dituztela bide zaharrak berreskuratzeko eta zabaltzeko lanak bideratzeko.
- *Ingurune naturala zabaltzeko ekintzak diseinatu eta garatzea* (irteerak mendira, boluntarioen ekintzak,....).
- *Hitzaldi bat antolatzea biodibertsitate-gaietan edo bestelakoetan ditugun gaitasunei buruz, urari buruz* (URA Agendarekin elkarlanean), denok jakin dezagun jokabide okerren aurrean (isurketak adibidez,...) erantzule nor den eta jarri beharreko salaketak jartzeko nora jo behar den.
- *Eta aurrekoarekin lotuta, Legazpiko mendietan eta basoetan egiten diren esku-hartzeak kontrolatuko eta haien segimena egingo dela zaintzea.* Hau da, mendietan eta basoetan egingo diren esku-hartzeak (Gipuzkoako Foru Aldundiak nahiz jabeek bultzatuta) aurretik Legazpiko Udalari jakinaraziko zaizkiola bermatuko duten mekanismoak lantzea eta eskuratzea, modu horretan esku-hartze horiek zaindu eta kontrola daitezen (udaletxeko nekazaritza saileko teknikariaren laguntzarekin). Eta era berean, herritarrek edo udalerriko erakundeek jokabide okerrak salatuz aurkeztuko dituzten kexak bideratzean Udalak zeresana izan dezala.
- *Agenda 21eko Ekintza-planean jasotako bestelako ekintzak bultzatzen jarraitzea* (mugikortasuna, kontsumo arduratsua,...) haiek guztiek lagunduko dutelako Legazpin biodibertsitatea hobetzen.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Auzoak birgaitzea

Inguruneari buruz egin diren proposamen guztiak luze eta zabal eztabaidatu ondoren (nabari da gustuko gaia dugula ingurunea), gaurko ezarrita dugun bigarren gaia aztertzeari ekin diogu: auzoak birgaitzea eta Foroaren parte hartzea.

Hasteko, lehenbizi Legazpiko alkatea Sote Plazaolak hartu du hitza eta Udalak gai horretan daraman funtzionamendua eta dinamika zein den azaldu du. Auzoei dagokionez, Udalaren eginbehar nagusia auzo desberdinetan eta udalerriko beste guneeetan dauden traba arkitektonikoak kentzea da.

Auzoak birgaitzeari dagokionez, nola egiten da lan Legazpin?

- Urtero, udal aurrekontuak prestatzen hasi aurretik, Udaleko Hirigintza eta zerbitzuen departamentua auzoetako elkarte desberdinekin eta ordezkariekin elkartzen da banan-banan (Egialde, Itxaropen, Brinkola, Telleriarte, San Ignazio,...).
- Auzo-elkarte bakoitzarekin egiten den bileran edo bileretan, haien eskariak jasotzen dira eta traba arkitektonikoak kentzeko edo auzoan hobekuntzak egiteko eskariak aztertu ondoren, lehenetsunak ezartzen dira hurrengo urterako.
- Udalak, jasotako eskari guztiak eta haiei erantzuteko dagoen aurrekontua aztertu ondoren, hurrengo urtean auzo bakoitzean egingo diren hobekuntza-lanak lehenesten ditu (horretarako ezarrita dauden udal irizpideak hartzen ditu kontuan: adibidez, auzoan bizi diren 65 urte baino gehiagoko pertsonen kopurua).

Nolabait, Sotek adierazi duenez, auzoetan egin beharreko esku-hartzeak lehenesteko garaian auzoek erabaki dezatela nahi du Udalak baina, betiere, horretarako dagoen aurrekontua gainditu gabe eta "ezin diegula lan guztiei heldu eta gehiago egin beharko litzatekeela" onartuz.

Eta Foroako kideek, zein iritzi dute jardunbide horri buruz? Zerbait gehiago proposatuko al dugu?

"Auzoak birgaitzea".

Egun jarduteko dagoen moduari dagokionez, zer otu zaigu?

Foroak oso ondo baloratu du Udalaren jarduteko modua eta planteamendua. Hala ere, herritarrak horren berri ez duenez, beharrezkoa ikusten da ondokoa egitea:

- *Jarduteko modu horren berri herritarrei ematea*, Legazpiko edozein bizilagunek egin nahi dituen eskariak auzoetako elkarten edo ordezkarien bitartez bideratzeko aukera izan dezan (dagoeneko martxan dauden elkarten bidez edo sor daitezkeen berrien bidez).





Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

"Berriak"

Bileraren azken minutuetan, bilera amaitzeko ezarritako ordua iristeko zorian, hiru ohar eta eskari bat jaso dira:

- *Produktu ekologikoen gaineko ikastaroa Legazpiko merkatariarentzat:* urriaren 19tik 23ra, eta Eusko Jaurlaritzaren eta Ihobe erakundearen laguntzarekin, Legazpiko Udalak, merkatarien IIinti elkartearekin elkar lanean, produktu ekologikoen gaineko ikastaroa eskainiko die herriko merkatariari. Helburu desberdinak ditu aipatu ikastaroak: produktu mota horien berri ematea eta haien garrantzia azpimarratzea, bakoitzaren eskaintzan produktu horiek nola sar daitezkeen ikustaraztea, bezeroari begira Komunikazioa eta salmenta nola landu daitezkeen erakustea,... Gai interesgarria eta sektorea interesa piztea espero dugu!
- *Eskolako Agenda 21:* aurtengo ikasturtean eskualdeko ikastetxeek honako gaia aztertzea erabaki dute: "Milurtekoaren helburuak". Gai horrekin, iazko ikasturtean landu zuten "munduan ekitate falta" gaia garatu eta zehaztu nahi dute. Gainera, Inmak eta Joxeanek urtero herriko ikastetxeetako ikasleekin egiten den bilera birplanteatu eta berritu nahi dutela adierazi dute. Seguru gaude guztiona ideiekin gauza berriak otuko zaizkigula.
- *Mendi irteera Burdinola elkartearekin:* Elkarteko ordezkaria den Florenek azaroan mendi irteera bat antolatuko dutela esan du. Hurrengo bileran emango dizkigu xehetasun gehiago: egun zehatza, ibilbidea,....
- *Kontrolatu gabeko isurketa-puntu baten identifikazioa:* Juan Jose Rodriguez kideak San Ignazio auzoan, zabortegeitik behera datorren pistan dagoen errekatxoan zaborra pilatzen ari dela adierazi du. Arazo horri aurre egitea eskatu du, euri asko eginez gero arazoak sor daitezkeelako. Beraz, jasota geratzen da!

● **Eta kanpai-hotsarekin batera, ... agur esaten dugu!**

Azaroaren 5ean elkartuko gara berriro eta seguru gaude aztertzeko gai berriak eta interesgarriak izango ditugula. Ordura arte, udazkenaren hasieraz eta urtaro berriak eskaintzen dizkigun koloreez eta paisaiatz goza dezazuela!

Eskerrik asko eta izan ongi!